



**LEITZA, ARESO, GOIZUETA ETA ARANOKO GIZARTE-ZERBITZUEN
MANKOMUNITATERAKO LAN- ETA ZERGA-AHOLKULARITZAKO
ZERBITZUAREN KONTRATUAREN PRESKRIPZIO TEKNIKOAK ARAUTZEN
DITUEN OINARRIAK**

1. KONTRATUA GAUZATZEAN BETE BEHARREKO EGINKIZUNAK

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitaterako lan- eta zerga-aholkularitzako zerbitzuaren kontratuaren lizitazioa arautzen duen pleguaren xedeari buruzko lehen apartatuarekin bat etorritz, esleipendunak administrazio-klausulen pleguko 1. apartatuan ezarritako eginkizunak garatuko ditu, eta horri honako berezitasun tekniko hauek gehituko zaizkio:

1. Langileen nominak, aparteko ordainsariak, atzerapenak edo kitapenak egitea eta hilero bidaltzea. Abian den hilaren 25a baino lehen.
2. Langileen gizarte-aseguruak egitea. Ezarritako legezko epeetan.
3. Baja medikoa duten edo ez duten lan-istripuen parteak izapidetzea, zuzenean istripuen eta Gizarte Segurantzaren Mutualitatearekin. Ezarritako legezko epeetan.
4. Gaixotasun arruntagatiko edo lanekoa ez den istripuagatiko baja medikoak izapidetzea. Ezarritako legezko epeetan.
5. Adierazitako kontratazioak egitea, altak eta bajak eta beharrezko gainerako izapideak barne. Ezarritako legezko epeetan.
6. PFEZaren atxikipenak kalkulatzeko 190 ereduak eta ziurtagiriak egitea. Hurrengo urteko urtarrilean.
7. Kontratuaren xede den gaian 5 orduko aholkularitza-zerbitzu bat ezartzea, eta, hala badagokio, Mankomunitateko zerbitzu juridikoei laguntzea, txostenak eginez, beren jardunari eusteko balio dezaketen epaiak eta ebazpenak emanez.
8. Langabezia-prestazioen eskaeretarako kotizazioen ziurtagiriak egitea eta izapidetzea. Beharrezkoak direnean.
9. Langileek errenta-aitorpenetarako dituzten pertzepzio, kenkari eta atxikipenei buruzko enpresa-ziurtagiriak. Eskatzen direnean.
10. Langile bakoitzari hileko nominak posta elektronikoz bidaltzea.



2. LANGILEEN EZAUGARRIAK.

Lizitatzailerei esleipen-eskaintzak prestatzeko erraztasunak emate aldera, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko 2024ko langileen ezaugarriak zerrendatu dira.

a) 2024/11/20eko langile-kopurua:

- Funtzionarioak: 3
- Administrazio-ko kontratadunak: 1
- Lan-kontratadunak: 7
- Aldi baterako kontratadunak: 3

Gaur egun, gainera, bi pertsona administrazio-kontratuarekin iraupen luzeko ordezkapenak egiten ari dira, eta beste bat lan-kontratuarekin.

b) Aldi baterako beste kontratazio batzuei dagokienez, 2024an aldi baterako 33 kontratu egin dira etxeko arreta-zerbitzuan unean uneko beharrei erantzuteko, 6 kontratu Gizarte Enplegu Babestuko Proiektuaren barruan, eta kontratazio 1 eskola-laguntzarako.

3. ESLEIPENDUNAK BETE BEHARREKO BESTE BALDINTZA BATZUK

Euskarazko arreta-ordutegia eta goizeko lanaldia bermatu beharko ditu. Ordutegi horretan, plegu honetan zerrendatutako lanak esleituta dituzten langileak egongo dira gutxienez.

4. HOBEKUNTZAK.

Lizitatzailen eskaintzen dituen hobekuntzak, nolahi ere, halakotzat zehaztu beharko dira eskaintza teknikoaren zati gisa aurkeztutako dokumentazioan, balorazioa egiteko, eta, nolahi ere, ulertuko da haren kostua eskaintza ekonomikoaren zati gisa jasota dagoela, eta, beraz, haren deskribapenean ezin izango da diru-kuantifikaziorik sartu.